

Familiaren gainean egin berri diren ikerlanak



- Gaur egun, etxetik kanpo lan egiten dute **guraso** gehienek eta **seme-alaben zaintza beste pertsona batzuen esku utzi** behar izaten dute, etxean bertan edo erakunderen batean, besteak beste, haurtzaindegian, haur eskolan eta haur hezkuntzako gelan: gurasoen ardurapekoa ez den zaintza honi, ordezeko zaintza deitzen zaio.
- **Ordezko zaintza** honek haurren **adimen- eta gizarte-garapenean** duen eragina aztertzeko egindako ikerlan baten emaitzak aurkezten dira agiri honetan.



- Izenburua: **Haurren zaintza goiztiarrari buruz, Haur Osasun eta Giza Garapenaren Institutu Nazionalak (USA)** egindako ikerlaneko emaitza garrantzitsuenak.

- Egilea: **Jay Belsky**, Londresko Unibertsitateko Ikertzailea.

- Agerkaria: **European Journal of Developmental Psychology**, 3, (1),95-110.

- Urtea: **2006**.

- Ikergaia: **Gurasoek bideratzen ez duten zaintzak haurren garapen psikologikoan duen eragina.**

- Bilboko Udalaren Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Sailerako itzulpena eta moldaketa.

- Itzultzaileak eta moldatzaileak: Etxadi taldea / Euskal Herriko Unibertsitatea (<http://www.etxadi.org>)

Laburpena

- Amerikako Estatu Batuetan, gero eta **emakume gehiagok lan egiten du etxetik kanpo**, eta ondorioz, gero eta haur txiki gehiago dago etengabe ama ez den beste norbaiten edo **ordezko zaintzapean**. Ordezko zaintza honek ondorioz izan dezakeen eztabaidatzen hasi eta, **1364 haurrek jaiotzatik bost urtera arte** izan duten garapenaren jarraipena egin duen asmo handiko **azterlana** burutu da. Ondorioen artean honako hau nabarmendu behar da: erakundeetan jasotako kalitatezko ordezkko zaintzak **adimen- eta hizkuntza-garapen handiagoa** eragin diela bertan zaindutako haurrei, gurasoek zaindutakoei baino. Halaber, ordezkko zaintza zenbat eta luzaroagoan bideratu, **kanpoko jokabide-arazo gehiago** azaltzen dira, patologikoak ez izan arren, hala nola, **oldarkortasuna, desobedientzia eta desafioa**. Agerian gelditzen da, ordezkko zaintzak arriskuak eta onurak dakartzala berarekin. Ordezko zaintzak haurraren garapen psikologikoan duen eragina ebaluatu ahal izateko, oso komenigarria da horren hainbat alderdi bereiztea, esaterako: horren **kalitatea eta kantitatea** zein familiaren testuinguruko **beste alderdi batzuekiko elkarreragina**.

Prozedura

- **1364 haurri eta haien familiei** buruzko datuak biltzen dira, haurrak hilabetekoak direnetik 4 urte eta erdi izan arte.
- Ondorengoak **neurtzen dira behin eta berriz**: A) **Hazkuntza-giroaren** kalitatea, B) **Ordezko zaintzaren** kalitatea eta C) **Garapen psikologikoa**. Haurrak 6 eta 15 hilabetekoak eta 2, 3 eta 4,5 urtekoak zirenean neurtu ziren A eta B. C, ordea, haurrek 15 hilabetekoak eta, 2, 3 eta 4,5 urtekoak zirenean
- Familiekin zuzenean izandako **elkarrizketen** bidez, **galdetegien** bitartez, **behaketa** sistematikoaz eta garapen psikologikoaren **eskalak** erabilia bildu ziren **datuak**.



Prozedura 2

- **A) Hazkuntza-giroaren kalitatea:** gizarte-eta ekonomia-maila, familiaren funtzionamendu egokia, ezkontideen arteko harreman ona, amaren osasun psikologikoa, hurrekiko harreman beroa, suspertzailea eta arau-emailea.
- **B) Ordezko zaintzaren kalitatea:** denbora, erakundekoa edo etxean bertan zaintzaileraren edo senitartekoren batek bideratuta, zaintzaileen ardurapeko haur kopurua, zaintzailearen egonkortasuna, estimulazio kognitiboaren maila, berotasun emozionala.
- **C) Garapenaren ebaluazioa:** adin horretako haurren adimen- eta hizkuntza-gaitasuna, berdinekoen taldearekiko gizarte-moldaketa, moldatu gabeko portaerak eta jokabide-arazoak.




Ordezko zaintzaren kalitatearen ondorioak

- Ordezko zaintzaren kalitatea zenbat eta handiagoa (haurrarekiko jardun-denbora, bere premiak behar bezala asebetetzea eta estimulazio egokia), orduan eta adimen- eta hizkuntza-garapen maila handiagoak. Bizitzako bigarren urtean zehar, berebiziko garrantzia dauka hizkuntza-estimulazioak. Eraitza hauek bat datoz beste ikerlan askorekin.

- Ordezko zaintzaren kalitate txikia amaren sentsibiltate-maila txikiari lotzen zaionean, aukera gehiago dute haur horiek **segurtasunik gabeko atxikimendua** garatzeko (6 eta 15 hilabeterekin neurtutakoak). Segurtasunik gabeko atxikimendu hau **itzulgarria** da, ordezko zaintzak adin horretatik 3 urte bitartean **hobera** egiten badu.

- 2 eta 3 urtez neurtutako ordezko zaintza zenbat eta kalitate handiagokoa izan, orduan eta jokabide-arazo gutxiago eta gizarte-gaitasun handiagoa.



Ordezko zaintzaren kantitatearen ondorioak

- **3 eta 15 hilabete** bitarteko epealdian zehar, **amaren sentsibilitate-maila txikiaren** ondorioz, **astean ordezkoi zaintza 10 orduetik gorakoa** denean, aukera gehiago dute haur horiek **segurtasunik gabeko atxikimendua** garatzeko. Eraitza hau 3 urterekin errepikatzen da.
- **6 eta 36 hilabete** bitarteko epealdian ordezkoi zaintzaren **denbora-tartea zenbat eta luzeagoa** izan, aukera gehiago dute haurrek adin horrekin eta **4 urte eta erdirekin jokabide-arazoak** garatzeko.
- **Bizitzako lehenengo 4,5 urteetan** ordezkoi zaintzaren **denbora-tartea zenbat eta luzeagoa** izan, aukera gehiago dute haurrek **inposaketa, desobedientzia eta oldarkortasuna** azaltzeko adin berean, eta hori, gainera, **etxean bertan zein ikastetxean**.
- Gaur egun, ondorio hauek izateko ordezkoi zaintzaren denbora-tarteak **bestelako zein alderdirekin elkarreragiten** duen aztertzen ari dira ikertzaileak.



Ordezko zaintza-motaren ondorioak



- **Erakundeko** ordezko zaintza, **senitartekoa ez den** pertsona batek, haurren **etxetik kanpo** eta bere egoera dagoen gutxienez beste haur bati ere eskainitako arretari deitzen zaio.

- **Etxeko** zaintza senitartekoren batek (aitak, aiton-amonak edo besteren batek) haurren **etxean bertan** edo haren senitartekoren batenean eskainitako arretari deitzen zaio.

- **2 urterekin**, ondorio **positiboak** ditu etxeko ordezko zaintzak, haurren **ahozko gaitasunaren** garapenean. Ondorio hauek ez dute denboran zehar irauten.


- Nolanahi ere, **2, 3 eta 4,5 urterekin**, **adimen- eta hizkuntza-garapen maila handiagoari** lotuta dago **erakundeko zaintzaren denbora-tarte luzeagoa**.

- Laburbilduz: **erakundeko ordezko zaintzaren denbora-tartea zenbat eta luzeagoa** izan, orduan eta adimen- eta hizkuntza-garapen maila handiagoa eta **oldarkortasun, desobedientzia eta desafiozko jokabideak** garatzeko **aukera gehiago**.



Iruzkinak

- Egilearen arabera, azterlan honen ondorioak bat datoz, gutxi gorabehera, **Ingalaterran 3000 haurrekin** eta Ipar **Irlandan 800ekin** egindako beste batzuekin.
- Datuek **amatasun-baja luzeen eta lana eta familia-bizitza bateratzearen aldeko politikak** ezartzea aholkatzen dutela dio egileak.
- Bere ustez, komenigarria litzake familiengan **gizarte- eta ekonomia-sistemaren presioa txikiagotzea**, seme-alabak hazten dauden bitartean.
- **Gizatasun aldeko ikuspegitik** ere, emaitzak era berean defenda zitezkeela uste du egileak.



Balorazioa



- **Zientzia-kalitate** handikoa da azterlana, eta baliteke gurasoek bideratzen ez duten zaintzaren eraginari buruz egindako onena izatea.
- Aztertutako aldagaien artean, **halabeharrezko harremanak** ezartzea ahalbidetzen dituzten neurri zehatzak, luzetarako diseinua (gizaki berberak denboran zehar aztertuz) eta analisi-estrategiak erabiltzen ditu.
- **Lagin handia** da, Amerikako biztanleak estatistikoki ordezkatzera heltzen ez bada ere.
- Antzeko diseinuaren arabera egindako beste azterlan batzuen emaitzekin **bat etortzeak**, ondorioak mendebaldeko **herrialde garatuetara orokortzeko** aukera ematen dio.

Ondorioak

- Oro har, egungo belaunaldien hazkuntza-baldintza berriek, intelektualki garatuagoko gizakiak izan arren, moldaketa-arazo psikologikoak eta gizarte-harreman desegokiak izango dituzten pertsonak ekarriko dituztela uste da, hau da: **azkarragoak baina bihozberatasun txikiagoak.**

- **Premiazkoa** da, familiei ondorengo alderdiei buruzko **heziketa eta prestakuntza** bideratzea:

- ***Segurtasunik gabeko atxikimendua** ez finkatzeko prebentzio-irizpideak.

- *Ahal den heinean, **familiaren ordezeko zaintza kalitate-maila handiarekin antolatzeko** irizpideak.

- ***Erakundeko ordezeko zaintza kalitatezkoa izan dadin aukeratzeko** irizpideak.

- *Adimen-**garapena sustatzeko** irizpideak, eta bereziki, seme-alabekin ematen duten denbora-tarteetan elkarreraginaren kalitatea areagotzeko gizarte- eta emozio-garapena.

- **Premiazkoa** da erakundeen esku-hartzea, **erakundeko ordezeko zaintzaren** eskaintza ororen **kalitatea bermatu** nahi bada.

